

Gidoia

1. sekuentzia. Kanpoa. Eguna.

Hiri handi batetako etorbiderik jendetsuenean gaude. Jendea gora eta behera dihoa erritmo azkarrean. Jende artean 50 bat urteko gizon bat ikusten dugu, nahikoa arazo ditu zutik mantentzen, jendeak aurrean darabil gure gizona, bera da besteek daramaten direkzio berdina eramaten ez duena, hor dabil batekin eta bestearekin estropoz eginez.

Alde batera eta bestera begiratzen ari da, zerbait bilatzen ariko balitz bezela. Jendearekin estropoz egiten jarraitzen du, gero eta gehiago, eskina batetara bidea hartu bait du. Azkenenean lortzen du kalearen eskina batean gelditzea, burua pixkat altxa eta alde batera eta bestera ari da begira. Ez da irixten ondo inor ikustera eta hanka zerbaiten gainean ipini, gorputza pixkat altxa eta jendearen artean norbait bilatzen du begiradarekin. Hanka batekin nahikoa ez eta banku batetara igotzen da. Bertan jendearen joan etorria ederki asko ikusten du, norbait bilatzen jarraitzen du.

2. sekuentzia. Kanpoa. Eguna.

Alde batera eta bestera begiratu ondoren, bere ardiak deitzen hasten da.

ARTZAIA

Utx, utx, utx, utx....

Hasieran inork ez dio kaso handirik egiten. Norbaitek begiradaren bat, ez gehiago. Berak indartsu jarraitzen du ardiak deitzen.

ARTZAIA

Utx, utx, utx, utx....

Artzaiaren aurretik pasatzen diren bi atso deiarekin txundituak geratu dira. Jende artetik nola hala atera eta bere aurrean geratzen dira, “espektakulo” baten aurrean egongo balira bezela, disfrutatzen. Artzaiak “kantuan” jarraitzen du, alde batera eta bestera begira. Gizon edadetu batek jende andanatik separatu, artzaiarengana inguratu, lurtean txanpon batzuk utzi eta badoa. Aita gazte bat eta eskutik tiraka duen ume txikia, bere umearen atzetik artzaiarengana inguratzen dira. Umeak artzaiaren “kantua” imitatzen du.

Gero eta jende gehiago geratzen da artzaiaren aurrean. Jendea lasai lasai geratzen da, hainbeste jenderen interesa sortu duen “espektakuloa” zein den ikustera. Bi atsoak emozionatuak daude. Jendea txanponak botatzera inguratzen zaio, artzaiak hotz jarraitzen du ardiak deika.

3. sekuentzia. Kanpoa. Eguna.

Artzaiaren aurrean kristoren jendetza dago, izugarria. Artzaiak “ardiak” deitzeari uzten dio, kalean gora begiratu eta bankutik jeisten da. Zapaldu dituen txanponei kasurik egin gabe kalean gora abiatzen da. Jendea bera begira du. Artzaiak atzera begiratu eta bere deia oihukatzen du.

ARTZAIA

Utx, utx, utx, utx....

Jendeak lehenengo duda ondoren artzaiaren atzetik ibiltzen hasten da. Artzaiak kalean gora jarraitzen du, noizean behin atzera begiratu eta deitzen jarraitzen du. Kristoren jende pila dioa bere atzetik. Artzaiak atzera begiratzen du, barrenean badago jendea oraindik dudan dagoenean eta eurei deika hasten da.

ARTZAIA

Utx, utx, utx, utx...

Atsoak “dudatiak” begiratzen dituzte eta atzera begiratuaz eskuarekin etortzeko keinua egiten die batek, beste atsoak berriz, artzaia imitatuz deitu egiten ditu.

ATSOA

Utx, utx, utx, utx.....

Dudatiak taldeari gehitzen zaie. “Artaldea” artzaiaren atzetik dihoa, txintxo, txintxo. Taldeko batzuek deika hasten dira artzaiaren atzetik dihoazen bitartean.

TALDEA

Utx, utx, utx, utx...

Artzaiari irriparre bat atera zaio, gustora doa benetan bere “artaldea” atzetik duela.

4º sekuentzia. Kanpoa. Eguna.

Bidegurutze batetara iristean ari gara. Artzaia zuzen dihoa, artaldea atzetik, baina de repente alde batetara begiratzen du oso serio, beste artzai baten deia entzuten hasten da.

ARTZAIA 2 OFF

Rila, rila, rila, rila...

Jada taldeko batzuk beste artzaiaren deia datorren aldera begira bait daude. Gure artzaia oihuka hasten da, beste artzaiaren deia zapuztu nahian.

ARTZAIA

Utx, utx, utx, utx...

ARTZAIA 2 OFF

Rila, rila, rila, rila...

Taldeko batzuk beste artzairengana dihoazela dirudi. Artzaia geratu egiten da. Taldea ere "kieto". Taldeetik ihesi doazen horiei errieta egiten die artzaiak oihuak eurei zuzenduz.

ARTZAIA

Utx, utx, utx, utx...

Beste artzaiak ere ez du galtzen "ardiak" lortzeko aukera. Are eta ozenkiago deitzen ditu. Artzai gazte bat da.

ARTZAIA 2

Rila, rila, rila, rila...

Taldeko batzuk jada artzai gaztearen taldera gehitzen dira. Bi atsoak kriston diskusio dute, batek gaztearekin joan nahi du, besteak ez du artzai "originala" utzi nahi. Aita gazteak ere joatea nahi du, umeak berriz gelditzea. Artzaiak gero eta ozenkiago ari dira oihuka.

ARTZAIA

Utx, utx, utx, utx...

ARTZAIA 2

Rila, rila rila, rila....

Korbatadun ejekutibo gazte bat deika hasten da justu bestekaldetik.

ARTZAIA 3

Tox, tox, tox, tox....

Taldeak bertara begiraten du. Kriston dudekin dago taldea, nora jo? Aukera asko dituzte. Batzuk aukera egin eta badoaz. Beste batzuk alde guztietara begira daude, galduta, artzaiak gero eta fuertean deitzen jarraitzen dute, taldea desegiten ari da. Artzai ezberdinen deiak erritmoa sortu dute, musika primitiboa dirudi. Jendearen artean denetik ematen da: Noraezean dabilen jendea, atsoen separazioa, umearen negarra bere aitarengandik galtzean.... Artzaiak gero eta gutxiago entzuten dira, jende andanak hartu du berriro kalea, batzuk alde batera doaz, besteak bestera, artzaiak gero eta gutxiago entzuten dira eta jendearen mugimenduek gure artzaia tapatzen dute. Hasieran bezela jendearekin estropozu egiten hasten da artzaia, alde batera eta besterako jendearen ibilerak artzaia desagertarazten digun arte.